

## **AEK-rekin hitzarmena**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1995-11-05: 3.

AEK eta Jaurlaritza hizketan aritu dira joan diren azken hamabost hilabetez, eta hemen bost urteko iraupena izan dezaken adostasuna AEKak Gasteizen ontzat eman du dagoeneko. Bada zerbait, zeren eta HABE eta AEKren artean itun bat sinatzea dago jokoan, eta honek dakarren euskararen normalkuntza! Badakigu AEKak kauteloski dion bezala, hitzarmena "ez dela helmuga", baina hizkuntzaren berreskuratze lanetan, noiz amaitzen da gure erantzunkizuna!? Ibai handiak itsasorako betetasunera iritsi arte eten gabe jaisten doan ura lurrintzean arintzen da eta aldi berean ezker-eskuin erreka aberasgarriak jasotzean indartzen, eta ez du pentsatzen amaierako itsasoan, ibai izatean baizik. Bakoitzak bere natura zaintzen edo egitekoa betetzen ahalegintzen da! Larunbatean Gasteizen eztabaidagai izan den bezala, orain, Kultura, Hizkuntz Politika eta HABEri gauza bera jazoko zaiote, eta Eusko Jaurlaritzak egin beharko du demokrazian sintesia. Inoiz berdina ez den urak osatzen duen ibai mugikor eta bizia da inoiz berdinak ez garenauok iraurarazi behar dugun euskara.